

XX. Dantzari Txiki eguna ospatu zen atzo

Euskal dantzen emanaldi polita izan zen ikusgai goizean herrian zehar eta arratsaldean Okendon

Atzo XX. Dantzari txiki eguna ospatu zen Lasarte-Orian. Faltzes, Urretxu, Zangotza, Legazpi, Oreta eta Portugaleteko taldeak etorri ziren eta herriko Landaberrikoak eta Erketz Txikiok. Guztira 250 bat ume inguru bildu ziren haietatik 120 Landaberrikoak eta 45 Erketz taldekoak.

Goizeko 10:30ean bildu ziren denak Isla plazan gero Brigitatarrenean talde argazkiak ateratzera joateko. Goizean Lasarte-Oriako auzoetako kaleetatik ibili ziren musikarekin herria girotzen, talde bakoitzak ibilbide desberdin batetatik. Jende asko gerturatu zen haurrak ikustera goiz osoan zehar. Bazkaldu eta gero arratsaldean berriro bildu ziren jaialdiarekin jarraitzeko. 17:00etan alardea egin zuten eta 17:30ean talde bakoitzaren emanaldia Okendon. Zortzi dantza tal-

deek egin zuten emanaldia Amalur trikiti taldearen laguntzarekin. Zinta dantza, makil dantza eta arrantzale dantza ikusi genituen beste askoren artean. Taldeek dantzatzeko bitartean gairontzeko umeek animuak ematen zizkieten eta beraikin batera dantzatzeko zuten musikaren erritmoarekin batera. Plaza dantzaleku bilakatu zen atzokoan.

Dantzak bukatutakoan oroigarri eta ateratako argazkiak banatu zituzten dantzarien artean, talde bakoitzeko bikote bat igo zen taula gainera bere oroigarria jasotzera.

Kalejirarekin bukatu zuten eguna dantzari gazteek 19:00ak aldera. Giro polita sortu zen eta jende asko gerturatu zen Okendo plazara txikien dantzak ikustera, zorionez ekitaldia bukatutakoan hasi ziren lehen euri tantak. •



Goizean auzoz-auzo ibili ziren dantzariak; arratsaldean aldiz, Okendo plazan eskaini zuten emanaldi ederrea.



Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, suhiltzaile egun batez herritarren laguntzarekin /4

KIROLA I 2

Samuel Rincon herritarren omenezko II. Memoriale ospatu zen igande goizean



Gotzon Huegun, herriko eskultorearen azken lana ikusgai Hernaniko Biterin /5



Material elektrikoa Argiak
Etxetresna elektrikoak
TB/Hi-Fi
Instalazio elektrikoak

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



ANAIK
JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • Tel.: 943 362386
LASARTE-ORIA

Gazte Bilgune bat sortuko dute Lasarte-Orian

Orain arte publiko egin ez bada ere, urtebeteko lanak, bilerak eta proiektu ezberdinak ezagutzea izan da lantalde aldakor batek, Ttakun Kutur Elkartearekin

batera eta erabilera hitzarmen baten oinarrituta, gazteek proiektu berriak sortzeko bideratu nahi den espazio berri hau irekitzeko arrazoia. Gazte ororentzako

gonbitea zabaltzea da ostiralean egingo den aurkezpena, egun horretatik aurrera ikusiko da erreleboa ziurtatzeko gai den egitasmo berri hau.

TXINTXARRI

Ostiralean, ekainaren 13an, asanblada ospatuko da arratsaldeko 7etan Iñigo de Loyola kaleko lokalean gazte bilgune bat eraikitzeko asmoarekin. Deialdiak bi helburu nagusi ditu lokalaren funtzionamenduak aurrera egin dezan. Alde batetik talde iraunkor bat osatu nahi da, lokalaren kudeaketaz arduratuko dena eta bestetik jendearen aurretiko jarrera ezagutu nahi da aurrera aterako diren proiektuek edukiko duten indarra ikusteko.

Hamasei urtetik gorako gazteei zuzendutako jarduera antolatua ez dira ia existitzen ez badira betiko kirol klubek antolatzen dituztenak eta adin tarte hori baztertu samar geratzen da. Proiektu honekin gazte horiei gustuko gauzak egiteko aukera eta tokia eskaini nahi zaie, jendea biltzeko leku bat sortzea hain zuzen.

Gazteek izan behar dute proiektu hau aurrera eramango dutenak, hasieratik parte hartu dezaten nahi da, bai eskintzen antolaketan eta baita lokala beraren atontze eta girotze lanetan, horrelako gauza batek eskatzen duen lana eta diru kopuruaren magnitudea ezagutu dezaten.

Lokala Ttakun elkartekoa da eta gaztetxe edo gaztelekua ez den beste zerbaitekin sortu nahi da. Dagoeneko txukunduta dago, komuna eta



Irudian Gazte Bilgunea hartuko duen lokaleko lanak.

argi indarra jarri dituzte eta baita esturktura berri ere. Hala ere, gauza zehatzak egiteko prestatu behar da oraindik. Entsegu gela bat jarri nahi da eta baita irratia izan daitekeen grabazioak egiteko estudioa. Horrek lana eta aurrekontu handia eskatzen du horregatik gazteekin batera egin nahi da lan. Oholtza bat jartzeko asmoa dago bi zatitan banatuta eta baita giro ezberdineko guneak. Lokala handia da, 244 metro karratukoa baina ez da gelatan banatuko handitasuna aprobetxatzeko.

Irakutze aldizkaria orain bertan egiten dute institutuko gazteek eta kuadrillategikoak han biltzen dira. Lokala hasi da martxan baina oraindik proiektu berri gehiago barne-

ratu nahi dira proiektu handi honen barruan. Rokodromo bat egiteko asmoa dago adibidez eta ostiraleko asanbladan zentzuzkoak izan behar diren ardurak hartzeko prest ikusi nahi da lan hori aurrera ateratzen hasteko. Beste proiektu batzuk ere proposatuko dira gazteek zein iritzia duten jakiteko eta parte hartzeko prest dauden jakiteko, baina haien iradokizunak ere kontuan hartuko dira aurrera eramateko taldetxo



bat ardurak hartzerantz animatzen bada. Gazteak izango dira euskal gune hau aurrera atera behar dutenak beraien lan eta ginarekin. •

Gazteak lokalean egoten dira

Gazteek oro har duten biltzeko joera asko aldatu da azken garaian eta gehienok ezagutzen ditugun inguruan dauden koadrila ezberdinen bilgune partikularak.

Gazteen arteko proiektuak eta elkarte antolatua gutxi dira herrian kirola eta musikaren inguruan biltzen diren bakan batzuk kenduta, eta askotan leku baten baino gehiagotan aurpegi berdinak ikustea ohikoa izaten da.

Beraz, badago gazteek nonbaiten bildu, eta elkarren arteko harremanetik sortzen diren egonezin eta ametsetatik ekimen berriak sortzeko premia. Sortze lanak emaitzak ematen baditu, gehiago amestu... eta taldean, bakarka aurrera eramanezin daitezkeen bideak urratuz bakoitzak gizarte ekimenetan parte hartzean jasotzen dituenak ezin dira edonola ordezkatu gaur egungo joerak dakarren bakarkako hiper-aktibitate azkarrak.

Samuel Rinconen II. Memoriala atzo

Atzo, ekainaren 8an goizeko 11etan Michelingo zelaian Samuel Rinconen omenezko II. Memoriala ospatu zen. Javier Murillok antolatutako partidari Michelin eta Casa Extremeñak jokalaririk ari ziren. Gipuzkoako futbol federazioak utzi zien ekipamendua eta talde txuria eta talde urdina bereiztu zituzten. Elastiko txuriarekin Javier Murillo, David Muñoz, Gabi Sanchez, Beñat Brit, Gorka Belartietak, Raul Garcia, Jairo eta Jonak jokatu zuten. Elastiko urdinarekin Txepo Olasagasti, Mikel Urdiain, Oscar Torres, Luis Garcia, Sogo,

Xabier Bobillo, Eduardo Mena eta Asier Goenaga izan ziren parte hartu zuten jokalaririk. Extremeñak eta Michelinek talde berdinetan jokatu zuten bata eta bestearen artean ezberdintasunik egin gabe.

Bide batez Victoria Etxeberri omenaldia egiteko aprobetxatu zuten atzoko eguna eta partida hasi baino lehen minutu bateko isilunea egin zuten bere oroimenez.

Jendea animatu zen partidak ikustera joateko eta gainera eguzkia atera zenez giro polita sortu zen atzo Michelingo zelaian. •



Irudian, partida jokatu zuten bi taldeak batera.

Bi antzezlan alkoholismoaren inguruan

■ Gizarte Zerbitzuetako sailak antolatuta, Zentro Zibikoko antzerki taldeak eta HHiko Lan eta Lan Beti Lan taldeak hartu zuten parte

TXINTXARRI

Alkoholiko Anonimoak elkarrearen 73. urteurrenarekin bat etorriz, Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak kontzientziazio lan bat aurrera eramateko asmoa du alkoholismoaren inguruan. Horretarako, ekitaldi bat antolatu zuen pasa den larunbaterako eta HHiko Lan eta Lan eta Emakumeen Zentro Zibikoko antzerki taldeek parte hartu zuten.

Taularatutako lanak

Antzezlanak arratseko 19:30ean hasi ziren Manuel Lekuona kultur etxean eta sarrera doakoa zen. Jende ugari bildu zen herritarren lanak ikustera. Lan eta Lan taldea izan zen lehen *El secreto bien guardado* antzezlanaren taularatzen. Lan honetan honako aktoreek hartu zuten parte: Domi Muñiz, Adolfo Perez, Manoli Fernandez, Maria Jose Gonzalo eta Esperanza Garcia, Ana Mirandaren zuzendaritzapean.

Taula gainetik atrezzo guztia kendu ondoren, eta beste antzezlan hasi baino lehen, Aureliano Pablok *Como un libro* poemaren ira-

kurketa egin zuen beste aktore batez lagunduta. Hauen irakurketa amaitu eta segituan, Zentro Zibikoko emakumeen antzerki taldeak *A mi sin alcohol gracias* lana prestatu zuen, alkoholaren kontsumoak etxebizitza batean nola eragiten duen garbi erakutsi zuena. Antzezlanean, test moduko bat ere ikusi zen, alkoholikoa nor den garbi uzteko asmoz.

Maria Aguirre eta Estitxu Mentaberriren zuzendaritzapean, kulturetxeko eszenatoki gainean Maria Rosales, Noemi Fernandez, Agus Perez, Maite Crespo, Yolanda Redondo, Erun Gonzalez, Dami Lopez, Manoli Fernandez eta Esperanza Garcia aktoreak izan ziren.

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako saileko lehendakaria den Lourdes Acevedok azaldu zuen moduan, "gure helburua gazteriarekin ere kontzientziazio lan bat egitea da, eta horretarako aurreikusita dugu ekitaldia eskoletan ere aurkeztea". "Sailean ikusten dugu garrantzitsua dela alkoholismoa bezalako gai bat lantzea, izan ere, biolentzia bezalako beste arazo batzuk kontsumoaren ondorio izan daitezke".



Goiko argazkiak, *El secreto bien guardado* antzezlaneko une bat; behean, *A mi sin alcohol* antzezlaneko.



Koala eta Ansa boletok irabazi dute Giroko Porra

Ostadar Kirol Fundazioak Giroko Porrako sariak banatu zituen ostiral arratsaldean Ilargi Tabernan, hau izan baita puntu gehien egin dituen taberna. Koala Jalgiko boletok lehen saria, 360 euro, eraman zituen eta Aitamariko Ansa boletok bigarren saria, 180 euro. Besteetan bezala,

urdaiazpikoak banatu zituzten Ostadarrekoek, baina *El chulo de la mislata* (Siglo XX) eta *Eugenio Estevez Sanz* (Karobi) boletoei dagozkien urdaiazpikoak jaso gabe daude. Aste honetan Geltoki 25 zenbakitik, Ostadarren egoitzaetik, pasa daitezke jasotzera.

Sasoeta-Zumaburuko ikasleen lanak Okendon ikusgai izan ziren

Lasarte-Oria Bizirik taldeak Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasleen marrazkiak Okendo plazan zintzilikatu zituen, larunbat goizean. Baina, eguraldiak ez zuen asko lagundu. Hala eta guztiz ere, antolatzaileek pozik azaldu dira ekimenarekin eta eskerrak eman nahi dizkie eskolako haurrei: "Erraustegia gaia eman genien marrazkiak egiteko eta lan guztietan haurrek gai honekiko ikuspegi ezkorra dute, garbi dute osasunarentzat kaltegarria dela".

Erraustetaren aurkako taldeak herritarrak gonbidatu nahi dituzte ondorengo ekimenetara parte hartzera: asteazkenean, 19:30ean, kultur etxean hitzaldia eskainiko dute Jordi Colomerrek, ingurugiroko teknikariak, eta Julia San Jose medikuak; larunbatean, ekainaren 14ean, Donostian errasketaren aurka egingo den manifestazioara. "Ezinbestekoa da herritarren parte hartzea".



Pailazoak egun batez suhiltzaile

Eskerrik asko! diskaren *Suhiltzaile izan nahi dut* abestiaren bideo-klipa eta erreportaia grabatu dute Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek Zabaletan eta Teresategi mendian. Lasarte-Oriako hainbat herritarrek parte hartu dute abentura honetan.

Itziar CARRASCO

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsk lasarteoriatarren laguntza izan dute berriz ere. Aurreko abenduan *Eskerrik asko!* diskoa eta liburuxka kaleratu zituzten. Proiektu honetan, ASPANOVAS elkartearekin elkarlanean jardun dira haurrek minbizia ezagutu eta gaitotasunaren eraginean berri izan dezaten. Honela, Mari Mototsen gaitotasunaren bizipena era naturalean eta itxaropentsuan aurkezten dute pailazoek. Diskoa eta liburuxka kalean dagoela, DVDa egiteari ekin diote, urria aldera kaleratzeko.

Suhiltzaile izan nahi dut abestiaren bideo-klipa Zabaleta auzoan eta Teresategi mendian grabatu dute, Lasarte-Oriako herritarren laguntzarekin, besteak beste: Mailu Arruti, Junkal Perez eta Antton Garin (aktoreak), Jesus Mari Presa eta Josu Gabantxo (suhiltzaileak), Edu Galardi (grabaketa) eta Isa Fernandez de Agirre (muntaiak).

Lau egun behar izan dituzte *Suhiltzaile izan nahi dut* abestiaren bideo-klipa eta erreportaia grabatu ahal izate-

"Lan ordu asko izan dira, baina oso ondo pasa dugu. Huekin dena katxondeo bat da"

ko. Edu Galardik kontatu digunez goizeko 9:00ak aldera hasi eta eguerdira arte, jo ta ke aritu dira lanean grabaketa egunetan. "Suhiltzaileek beraien aldetik dena jarri eta erraztasun guztiak eman dizkiguten arren, lan konplexua izan da, muntaiak handia izan delako. Alde batetik, jende asko koordinatu behar genuen eta bestetik abestiak eskatzen zuen guztia lortu behar genuen: katu bat zuhaitzean, suhiltzaileen kamioiak, eskailera, sua, istripua izan duen kotxe zahar bat, zodiakak... Letrak esaten duena irudietan islatzen saiatu gara".

Suhiltzaileen parkean

Bi egun Donostiako suhiltzaileen parkean igaro dituzte



erreportaia grabatzeko. Pailazoek ez zuten soilik suhiltzaileak egunerokotasunatik atera, parkearen parean dagoen ikastetxeko irakasleak ere bai; haur guztiak mahaiaik utzi eta leihoetako beiretan itsati zituzten aurpegiak. Azkenean, ikastetxeko larrialdietarako atetik patioa atera ziren ikasle eta irakasleak grabaketa ikusteko. "Garabia, zazpi pisutako luzera duen eskailera, amona eskaileran puntan, 3 pailazo, 8 suhiltzaile, extrak, ke makina mar txan... izugarria izan zen", Eduk irribarrez dio, "haukin dena katxondeo bat da. Lan ordu asko izan dira muntaiak ez zelako erraza, gainera, horri gehitu behar zaio haurrak han zeudela, pailazoak agurtu nahi zituztela eta hauek beti bezala alai, pozik haurrekin aritu ziren. Horrek daraman deborarekin!•



Nola ausartu zarete pailazoekin lana egitera?

Porrotx gurekin jarri zen harremanetan eta lana zertan oinarritzen den azaldu zigun. Bisitaxo bat egin zuten ospitalera eta neska batek esan zien suhiltzailea izan nahi zuela handitan eta hori izan zuten abiapuntua. Suhiltzaile batzuk joan ginen abestiko

koroak grabatzera eta bertan ginela sortu zen bideo-klipa eta erreportaiaren ideia.

Donostiako suhiltzaileen parkea erabili duzue eta suhiltzaile talde bat aritu zarete grabaketan.

Zuzendaritza taldetik erraztasun guztiak eman dizkigute, izan ere, kamioiak eta beste-

"Suhiltzaileok asko disfrutatu dugu Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsekin lan hau egiten"

lako materiala prest egon behar dute larrialdietarako. Beraz, libre ginen suhiltzaileok orduz kanpo aritu gara grabaketa egiten. Guretzako lan hau ondo datorkigu, gure lanean prebentzioa sustatu behar dugulako. Beraz, lan honek informazio honen hedapenerako balio digu.

Nola bizi izan duzue istorio hau?

Oso gustura aritu gara eta suhiltzaileen ezagutzen ez den aldea erakusten da erreportaietan: parkera sartzen garen momentua, arropa aldatu, larrialdiak ez daudenean zertan pasatzen dugun denbora, egongelako giroa... Abestiaren letrak oso ondo jasotzen du

gure lana. Guretzako ohore bat izan da lan honetan lagundu ahal izatea. Pailazoek suhiltzaile izan nahi dute eta beraien tresnekin saiatzen dira: sua itzaltzeko urrezontzi bat hartzen dute, uretan erreskatea egiteko txalupa puzgarri batekin joaten dira... Imajinatu dezakezue... oso dibertigarria izan da.

Eszenaren bat buruan?

Larrialdi bat dagoenean, kamioia hartu, sirena jarri eta ziztu bizian ateratzen gara, baina beti trafiko pilo bat egoten da eta oztokatzen digute. Orduan, gu leihotik burua eta besoak atera eta garrasi has-ten gara. Zabaletan grabatu dugun eszena bat horrela izan

da: pailazoak astoa eta gurdia hartuta larrialdi batera ateratzen dira gure aurretik eta gure kamioia oztokatzen dute. Eszena gau oso dibertigarria izan zen.

Zer da arrisksuagoa suhiltzailearen lana ala pailazoekin lana egitea?

Oso erraza da beraiekin lana egitea, lasaitasuna ematen dizute. Oso ondo pasa dugu beraiekin, asko disfrutatu dugu. Gainera, gure lanean batzuetan gauza tristeak ikusi behar ditugu eta haukin lana egitea izugarria izan da. Beraiek gure lana eskertu digute, baina benetan gu gara beraiek eskertu behar ditugunak umeekin egiten duten lanarengatik. •

Oialume auzoko istorioak mural batean zizelkatu ditu Gotzon Huegunek

Aste honetan Hernaniko Biterin dago ikusgai bi metroko intxaurrondo tailatua

Gotzon Huegun Lasarte Oriako eskultoreak, bi metro karratuko mural handi bat egin du Oialume auzoko eta bertako erromerien inguruko hainbat istorio jasoz. Hernaniko auzo honetako tabernan kokatuko da baina jabeari (tabernako Barrenetxea-Lasarte familiari) eman aurretik ikusgai jarriko da. Lau hilabeteko lana izan da: batetik egurra zizelkatu du eskultoreak eta bestetik altzairuzko markoa jarri dio.

JON ALTUNA

Oialume auzoko Barrenetxea familiaren enkarguz egurrezko mural berezia egin du Gotzon. Auzoko azken 60 urtetako hainbat gertaera eta bizipen jasotzen dira taberna daukaten Asentsio Barrenetxea eta emazteari anai batek egin dion oparitan. Taberna barruan jarriko da datoren astetik aurrera.

Istorioaren hasiera, duela 60 bat urte Barrenetxeatarren aitak egindako apustu batean datza. Halterofiliako barren antzekoa baina helduleku karratua duen euskal barra norik gehiagotan altxa apustu egin zuen bi lagunekin. Girotzeko soinu-jole bat eraman zuten eta igande ederra pasa zuten bildutakoek dantzan. Horren ondo pasa zuten, jendeak igandero zerbait antolatzeke eskatu zion eta ordutik negu partean igandero izan da erromeria Oialume auzoan. Oraindik ere egiten dira igandetan disko festak.

Oialumeko erromeria

Erromeria bi arbolet artean egiten zen eta horiek ere muralean daude, bakoitza alde banatan, baita lehengo etxe zaharra ezkerrean eta dantzaleku berria eskuinean eta auzoko zein erromeriatara joan ziren kanpotar ugari irudiak, dena biltzen da muralean: hasierako nekazal giroa, aipatutako apustua, Barrenetxearren ama sukaldean eta izeba barran, umeak erriak saltzen soinu-joleari ordaintzeko, ardo kupela kanilarekin, dantzara joaten ziren Loiolako soldaduak eta Donostiako neska-meak, hauen igandeko zapatak ez hondatzeko alokatzen ziren alpar-gatak, soinu-jole itsu bat ere ageri da, behin euri asko egin eta errekatxoa hazi arren itsuak ura berarengana iristen ari zela konturatu gabe oholtza gainean jotzen jarraitu zuen ueña, aterkiak, igandero zozketatzen ziren oilasko

parea, aharia,... Baita garai modernoagoak ere, Asentsio berak Trakets taldean bateria jotzen zuen garaia, gitarra eta saxofoi joleak, euskara eta Euskal Herriaren aldeko militantziaren garaia, lauburu... eta azken partean 80. hamarkada beste orrazkera batzuk, euskal herrian euskaraz, eguzki eta Aministiaren aldeko sinboloak. Garai hartan sarrera kobratzen hasi zirela irudikatzen da eta bukaeran izeba, jada amona bihurtuta ageri da istorio guztia kontatzen.

Istorio gehiago baziren, baina egurren tamaina izan da muga. Dena ezin izan du sartu, 2,30x1,10 neurriak ditu eta 25 zm.ko lodiera. Intxaurrondo egurra da eta marko bezala darabilena, altzairu korten delakoa, Txillidak Haizearen Orrazian erabilitakoa.

Prozesu luzea izan da, urte osokoa, ideia sortu zenetik bi astean behin edo izan da Oialumen, hasieran historia ezagutzeko, gero estiloa finkatzeko, zirriborroak ikusi, azken marrazkia erabaki... Kostata baina lortu zuen intxaurrondoa, Oiarzungo baserri batean, detaile txikiak egiteko ona delako aukeratu du. Gero hiru hilabete eta erdian eskuz landu du egunero bederrati bat ordu zizelkatuz. Lan handia izan arren, oso gustura egin duela aitortu digu Gotzonek. "Gauza bat da marrazkia, erraz egiten da, baina gero egur asko kendu



behar da azken emaitza lortzeko. Orain ikusita badirudi bi goizetako gauza izan daitekeela, baina ez".

Aurrera begirako lanak

Hernanin sanjuanetan dantza lehiaketako bi garaikurrak zizelkatzen ari zen Gotzon aurreko ostiralean. Lanik eta etorkizunerako asmorik ez zaizkio falta. Nafarroako Azkarate herrian eraikitzen ari den etxe-tailerrean egur handiak dauzka datorren urterako erakusketa bat prestatzeko. Enkarguei esker bizi bada ere, denbora duenean bere gogoeta eta barrutik ateratako piezak egiten ditu erakusketarako. Azkenean ekoizitako gehiena saltzen du zoriez.

Polonian izan da egun hauetan, bere lanen erakusketa han egiteko asmoa du. Bertako batzuek proposatu zioten maiztean egiteko, baina Oialume eta Azkarateko lanekin ezinezkoa izan bada ere, bertan izan da tokiak ezagutu, espazioak ikusi eta beraiekin hitz egiteko. Aurretik, Frantzian eta Suitzan zenbait sinposiumetan egon da. Beretzat garran-

tzitsua da lana izatea, enkarguei ondo erantzutea da, baina "gustatzen zait urtean behin edo horrelako sinposiumetara joatea, proposamena egin eta hautatua baldin bazara bertara joan 15-30 egunetan eskultura egiteko. Murtxantzen bada lehiaketa bat ardoren inguruan eskultura bat egiteko, erakartzen nau, baina ez dakit denborarik izango dudana".

Badu beste mural handi bat egiteko asmoa, "4 m. luzera, 1,10 altura eta 15 zm.ko loditasuna duen haritz egurra erosteko asmoa dut aukera dudanean Euskal Herriko historia garatzeko, Ekaineko kobazuloak margotu zituztenetik Euskal Herriko azken sorginak hil zituzten garairarte. Era surrealista batean, Europa zaharreko kultura, naturari lotua, kobazuloak, sendabekarrak, akelarrea...".

Autodidakta

Lasartearra, 17 urtera arte bertan bizi izan zen, gero Zarautzen 13 urtean, beste bi Hernanin, "orain Azkaraten egiten dut etxea eta esaten dut Azkaratekoa naizela". Hernanin ere badauka tailerra.


20 urterekin hasi zen egurra lantzen. Patri-

cio Madoz, bere aitaren lagunarekin. Hura erretiratzean, Zarautzen izan zuen beste maixu bat. Beti bere kasa ikasi du, eskoletatik pasa gabe. Geroago eskultura ikasi nahi eta Debako eskolan egin zuen ikastaro bat zein harri mota dauden eta zein erreminta erabiltzen diren ikasteko. Saiazen da urtean hilabete bat edo Murtziako maixu batengana joaten. "Horrelako maixuak bilatu ditut beti, eskoletan dena da arautua eta zure kreatibitatea murriztu egiten dizute".

Bere lanak kalean

Zenbait lan baditu Lasarte-Orian, Atsobakarren Mendiluzeren omenezkoa, ondoko errotonda batean beste pieza bat eta Lasarteko sarrerako plakarena geltoki ondoan; Hernanin, Zinkoeneako plazan; Usurbilen Eguzkitze plazan sagardo egunaren inguruko harrizko iturria, Debako pasealekuan, Miramar jauregian,... Almerian ere badauka eskultura bat, hango nazioarteko sinposiumean hautatu zuenetik.

"Nire ustez artea museoetan baino kalean egotea ederragoa da, kalean edozeinek du aukera eskultura ikusteko, beste gertutuan bat dago. Poza ematen dit kalean lanen bat jartzeko proiektua atzeratzen denean eta batera urduritasun eta beldurra, kalean kritika zabaldu egiten da". Kritika onak izaten dituela aitortu digu. Klaseak eman ditu aurretik Hernanin, "baina ni tailerreko mutila naiz, gustuko musika jarri eta lana egin". •



Koordinatzaile eta begiraleak asteburu pasa Orion

Udako Unibertsitateetako euskarazko ikastaroetara joateko beka

Udan egingo diren jardueren programazioa eta gainerakoak zehaztu zituzten

TXINTXARRI

Lortu beharreko helburuak asko ziren, horien artean begiraleen funtzioak zehaztu, egin behar duten lana zein den ondo jakin dezaten. Bide batez begirale, koordinatzaile eta lantaldearen harremana bultzatzeko balio izan du irteerak, asteburu bat elkarrekin pasa eta horrela harremanak sendotu dituzte.

Asko berriak ziren eta elkarren artean ezagutzeko aprobetxatu dituzte egunak. Koordinatzaile bakoitza bere taldekoekin egon da eta talde jokoak egin dituzte elkarrekin. Parte hartzea derri-gorrezkoa zen baina oso balorazio ona egin dute koordinatzaileek, begiraleen inplikazio eta parte hartzea handia izan zelako. Udako ihardueratan helburu batzuk daude finkatuta eta horiek lortzeko egin beharrekoak azaldu zizkieten begiraleei, adibidez hizkuntza helburuak lortzeko trebatu dituzte, beti hezkuntza

baloreak kontuan hartuz eta irizpide pedagogikoak landuz. Azken finean, lortu nahi diren helburuak eskuratzeko baliabi-deak eskaini zaizkie gazteei.

Beste eratako formazioa ere eman zitzaizen begiraleei, lehen sorospen ikastaroa adibidez edozein ustekabe dela prest egon daitezten.

Programazio aberatsa landu dute asteburuan zehar, ikasten zuten bitartean ondo pasatzea zen helburu garrantzitsu bat eta nahiz eta eguraldiak ez lagundu primeran egon ziren gazteak. Asteburuan egindako lan honekin begirale eta koordinatzaileen arteko funtzionamendua hobetu da harremanak estutu direlako.

Larunbatean, afaldu eta gero, sorpresa zeukaten prestatua eta Oriotik ibili ziren pista-jolasean. Koordinatzaileek begiraleen rola hatu eta herrian zehar ezkutatu ziren, begiraleek aurkitu behar zituzten haurrak izango balira bezala. •



Begiraleek dantzako koreografiak ikasi zituzten asteburuan.

Azken urteetan bezala, Lasarte-Oriako Udako Euskara Batzardeak Eibarren, Baionan eta Iruñean Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) egingo dituen ikastaroetara joan nahi duten herritar guztientzat beka onetsi ditu. EHU/UPV/K Donostian antolatzen dituen euskarazko ikastaroetara joateko ere beka izango dira.

Eibarko ikastaroak ekainaren 30etik uztailaren 11ra izango dira, Baionakoak uztailaren 14tik 18ra eta Iruñakoak, berriz, uztailaren 21etik 25era.

Ikastaroak astebetekoak dira eta jakintzagai ugari izango dira aztergai: psikologia, arkitektura, informatika, publizitatea, antropologia, antzerkia, natur zientziak, kimika, sexologia, osasuna, soziolinguistika, eta abar.

Ikastaroak prezio desberdina du, langabetua izan edo ez izan. Halaber, ikasleak bi konzeptu izan ditzake ordaindu beharrekoak, matrikula eta egoitza eta otorduak. Euskara Batzardeak onartu dituen dirulaguntzak matrikula kostuak ordaintzeko soilik izango dira.

Dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Eskaria egiteko azken eguna uztailaren 7a izango da. Dirulaguntzei buruz edota ikastaroetako programari eta antolakuntzari buruz interesa edo informazioa nahi izanez gero, Euskara Zerbitzura jo dezakete, telefono honetara deitu 943 37 61 84 edo mezu bat idatzi euskara@lasarte-oria.org helbidera. •


Lasarte-Usurbil Institutuko diploma banaketa

Batxilergoa bukatu duten ikasleei zorionak emateko ekitaldia ospatu zuten ostiral eguerdian institutuan bertan

Ostiralean, ekainaren 6an Lasarte-Usurbil Institutuan batxilergoa bukatu duten ikasleen diploma banaketa egin da. Karlos Kortabarria irakaslearen eskutik jaso zuten institutuko azken eskola, Oñatiko Unibertsitateari buruz hitz egin zuen. Esther Urrutia zuzendaria izan zen ekitaldia aurkezteko ardura-duna. Eguerdiko 12:30ean hasi ziren eta ohiko diploma banaketa egiteaz gain ohorez-

ko matrikulak ere banatu zizkieten, merezimendu gehien bildu zituzten ikasleei. Jarraian dituzte ikaste horien izenak: Lasarte-Oriako Angel Rodriguez, Zubietako Maria Montero eta Usurbilgo Garazi Torrealdia.

Ekitaldia bukatutakoan bertaratu ziren ikasle, irakasle eta gurasoek Lasarte-Usurbil institutuak eskainitako lunch ederra dastatzeko aukera izan zuten. •



LOKE Texas taldeko deialdia

Kadeteen lehengo mailako talderako deialdia egin du. Bilkura gaur, hilaren 9a, arratsaldeko 17:30ean izango da. Interesa duten jokalariek guztiek, 14 eta 15 urte bitartekoek, Michelingo zelaira hurbildu daitezela entrenamenturako arropa egokiarekin. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarazko Batzardea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

JOSE MANUEL MONGE margolariaren ikasleen lanak erakusketa aretoan ikusgai astelehenerik ostiralera. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00ak arte.

Erakusketa

AMARAUN JAIALDIAN, Jalguen Elkarteak kideek ateratako argazkiak izango dira ikusgai. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan



Errausketa baino alternatiba osasuntsuagoari buruzko hitzaldia

ATEZ-ATEKO BILKETA: ERRAUSKETA BAINO ALTERNATIBA OSASUNTSUAGOA izenburupean hitzaldia eskainiko dute Jordi Colomer-ek, ingurugiroko tekniko eta atez-ateko bilketan aditua eta Julian San Josek, medikua eta errausketa osasunean duen eraginean aditua.

ASTEAZKENA, HILAREN 11N
19:30EAN KULTURETXEAN
GAZTELANIAZ

Osteguna, 12

Hitzaldia

TREBETASUN SOZIALEN inguruko hitzaldia KIUBek antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

GAZTELANIAZ

Liburutegiko ordutegia

Astelehenerik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era. Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Ostirala, 13

Kontzertua

RUBÉN SALVADOR 4ET, Ruben Salvador tronpetariak gidatutako laukotea. Jalgin, 22:30ean.



Larunbata, 14

Kontzertua

ARGI BELTZ emanaldia Tirri Tarra fanfarrea eta Alboka abesbatzarekin. Andatza plaza, 23:00etan.

Asteartea, 17

Musika

UDAL MUSIKA Eskolako ikasleen emanaldia dohainik. Kulturetxean, 19:00etan

Asteazkena, 18

Hitzaldia

TRATU TXAKARRAK BIKOTEKIDEEN ERLAZIOETAN landuko dira KIUB-ek antolatutako hitzaldian Kulturetxean, 18:30ean.

6. Antzerki Astea

Astelehena 9

19:00etan, "ELURREZKO PANPINA" LH5, 2. taldea.

19:00etan, "AINGERUEN ETA DEABRUEN ISTORIO BAT" LH5, 1. taldea.

Asteartea 10

18:00etan, "SUPER-UMEAK" LH6.

18:00etan, "ITSUAK" Zabale-tako gaztetxoak.

Asteazkena 11

19:00etan, "LANDABERRI IKAS- TOLAKO IRRATIA" DBH1-2, 1. taldea.

19:00etan, "GURASOAK" DBH1-2, 2. taldea.

Osteguna 12

19:00etan, "LOTSAGABEAK" DBH3-4.



Oharrak

Gizarte Zerbitzuen

Departamentuaren oharra

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean dharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die zabalik dagoela Departamentu honek eman ohi dituen dirulaguntzak eskuratzeko eskariak aurkezteko epea. Horretarako eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (9:00etatik 13:00etara bitartean), eskatutako agirierkin batera (Memoria, Gastuen Justifikazioa eta Jardueren Proposamena). Maiatzaren 5etik 30era aurkeztu daitezke eskariak.

Glotodidaktika ikastaroa

Euskara irakaslea izan nahi dutenentzat, Antiguako AEK euskaltegian glotodidaktika ikastaroa antolatuta dute. Euskara irakasteko oinarritzako prestakuntza emango da ikastaroan ekainaren 30etik uztailaren 24ra bitartean. Informazio

gehiagorako, deitu 943327172 telefonora (Gipuzkoako AEK). Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologazioarako baldintzak betetzeko gero, AEKren lan poltsan izateko aukera izango duzu.

Larrain dantza ikasteko saioak

Herriko festak aitzaki hartuta, Xiberuko zenbait polka, eta Larrain dantza ikasteko saioak antolatuta dira. Edonork hartu dezake parte ekimen honetan. Ensaioak Erketzen lokalean egingo dira. Ekainak 6, 13, 20 eta 27an. Izen emateak Ttakunen (943 371448).

Maria Auxiliadora elkartearen irteera

Ekainaren 15erako antolatuta du Lasarte-Oriako Maria Auxiliadora elkarteak irteera. Lehenengo Segurara joango dira, gero Zumarragako Antiguako ermita ikusiko dute eta ondoren Oñatin bisita gidatua izango dute. Arantzazun baz-

kaldu eta gero, Arrikutz koba bisitatuko dute arratsaldean. Izena eman nahi duenak ondoko bi telefono hauek deitu behar du: 943 363675 eta 943 360042.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Gure eskolan aurrematrikula egiteko epea ekainaren 2tik 13ra irekita izango da.

Kartel lehiaketa

Durangoko Azokako 43. edizioa prestatzen hasi dira eta kartela aukeratzeko lehiaketa martxan dagoela gogorazi dute antolatzaileek. Ekainaren 27an amaituko da lanak aurkezteko epea. Informazio gehiago behar izan ezkeror www.durangokoazoka.com helbidean parte hartzeko oinarriak aurkituko dituzue.

Sorgin dantzaren entseguak hasiko dira

San Pedro jaietako Sorgin dantzako desfilea prestatzeko asmoz, ekainaren 3an hasita

astearte eta ostegunero entseguak egingo dira Landaberri BHI ikastolan arratsaldeko 20:00etatik 21:00ak bitartean. Komenigarria da ekitaldian parte hartu nahi duenok entseguetara joatea. Beraz, aurreko urteetan parte hartu baduzue ere, eta Sorgin dantza ongi dantzatzan baduzue ere, antolatzaileek entseguetara joatea eskatu nahi dizute.

Erketz Dantza Taldea

Ekainaren 10, 13, 17 eta 20an arratsaldeko 20:00etan Zumaburuko eskolako gimnasioan, San Juan gaueko Soka-Dantza prestatzeko entseguak egingo dira. Entseioen iraupena ordu-dubetekoa izango da.



Zikiro afariko txartelak salgai

San Pedro jaietan urtero Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen duen Zikiro afarirako txartelak salgai dardela jakinarazi dute. Eskuratu nahi dituenak, Jalgin eta Ttakunen bertan dituzte salgai 18 eurotan.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Bi erronbotako antzezlan

■ Klik-on antzezlan ekainaren 13an, 22:30ean Manuel Lekuona Kultur Etxean ikusgai

Mertxe Rodríguez lasarteoriatarrak zuzendu du Landaberri Antzerki Eskolako helduen taldeak ostiralean eskainiko duen antzezlan: **Klik-on**. Aurten, ikasleek prestatu duten obran sexualitatea lantzen dute. Bideoa eta antzerkia uztartu dituzte oraingoan. Talde honetako Zuzendariarekin, Mertxerekin, taldearen garapenez eta antzezanaren inguruan aritu gara hitz egiten.

ITZIAR CARRASCO

Landaberri Antzerki Eskola jaio zenetik helduen taldea zuzentzen duzu. Zergatik hartu zenuen eronka hau?

Donostiako kulturetxeetan antzerkiko eskolak ematen nituen eta pailazoekin lanean ari nintzen. Eskola sortu zenean irakasle izatea eskaini zidaten, baina hasieran ezetza eman nuen, lasaia ibili nahi nuelako. Eta Joxerra Fachado hasi zen. Baina, bigarren taldea sortu zenean, ezin nuen ezetz esan. Izugarriko poza eman zidan bigarren taldea aterata zela jakiteak. Horrek ere animatu ninduen.

Eskolan hasi zinatean, zein zen zure helburua?

Lasarte-Orian ohitura gutxi dago antzerkia ikusteko eta eskolaren bitartez jendea antzerkira eta antzokira hurbiltzea izan zen eskolako helburuetariko bat.

Urtetik urtera gauza desberdinak landu dituzue.

Taldean parte hartzen dutenek hutsetik hasi ziren, inoiz antzerkia egin gabe eta antzerkiaren gainean gauza asko jakin gabe. Beraz oinarriko gauzak lantzen hasi ginen: mimoa, clown... Egun, txikien taldean lantzen dituzten gauzekin hasi ginen.



Eszenatoki gainean zer ez den egin behar, truko batzuk ikasi eta taldekideekin konfidantza hartzeko ariketak landu genituen. Kontaktu fisikoa oso garrantzitsua da eta ez gaude ohituta horretara. Konfidantza hori lortzen denean, harremanak aldatu egiten dira.

Denborarekin gero eta antzezan zailagoak landu dituzue.

Bai, oinarrikoarekin hasi ginen tea pixkanaka gauza gehiago landu ditugu: testu txiki batekin hasi ginen, gero eta eszena gehiago gehitzen joan gara. Iaz antzerkia, dantza eta irudiak uztartu genituen. Urte hauetan gauza desberdinak probatzen aritu gara.

Sei urte hauetan ia talde berdinarekin aritu zara, honek ez al ditu gauzak errazten?

Herriko jendea da eta denetan artean elkar ezagutzen gara. Baina, egia esan, ez nuen

espero taldeak hainbeste iraugo zuenik. Antzerkia irakasten aritu naizen beste lekuetan bi edo hiru urtez irauten zuen jendeak. Hemen, berriz, taldeak egonkortasuna lortu du. Batzuk hasieratik daude. Beraz, bakoitzak badaki zer egin eta zer eskaini dezakeen eta noraino iritsi daitekeen. Ez dakit zer gertatzen den, baina sei urte hauetan bi mutil besterik ez da taldean sartu. Antzerkia egitera animatu beharko lirateke.

Aurten zer landu duzue?

Aurtengoan probatu nahi genuen ea zer zen kamararen aurrean jartzea. Oso desberdina da ikusleen aurrean edo kamara baten aurrean antzezte. Toma desberdinak hartu behar dira, errepikatze-ko aukera dago eta ikusleen aurrean behin bakarrik egin dezakezu, ezin da errepikatu. Ezer egin aurretik Isa Fernandez de Agirrerekin hitz egin genuen ea muntaia egin

dezakeen jakiteko. Baiezkoa eman zigunean, hasi ginen lanean eta urte erdia kamararen aurrean pasa dugu.

Nola aukeratu duzue gaia?

Gai zentrala sexua da eta *La maleta roja* oinarritu gara gaia lantzeko. Bartzelonan eta, modan jarri den zerbait da: etxe-etxe jostailu erotikoen salmenta. Aurreko udan Bartzelonan lagun batzuen etxean ezagutu nuen hau eta berehala burura etorri zitzaidan aurtengorako gaia. Taldekoei komentatu nien eta denei oso ideia interesgarria iruditu zitzaion. Beraz, *La maleta roja* liburua oinarritzat hartu dugu pertsonaien perfila lantzeko. Antzele bakoitzak bere perfila landu du.

Zergatik bi eronbo?

Auto-zentsura pixka bat egin dugu. Ez da ezer ikusten, insinuatu egiten dugu, besterik ez. Baina, gure artean hitz egin genuen eta beste urteetan umeak antzerki

ikustera joan dira antzeleen artean gurasoak edo ezagunak zeudelako, edo eskolako ikasleak direlako... Adin horietan gai honek lotsa eta parregurea ematen die eta agian, antzeleek kontentrazioa galdu dezaketela uste dugu. Iaz, gertatu zitzaigun. Gaia ez zegoelako umei zuzenduta. Gainera, denbora izango dute denetarik ikusteko.

Zergatik joan behar gara ostiralean Klik-on antzezlan ikustera?

Iruditzen zait gai hau hemen ez dela oso ezaguna, sexua bai baina jostailuak ez. Jostailu hauekiko ez dugu gertutasunik, lotsatzen garelako, denda batera erosteko edo galdetzeko ausartzen ez garelako... Agian, nire irudipena da. Antzerkian jostailu erotikoko hauek erakutsiko ditugu eta bukaerarako sorpresatxo bat gordeta daukagu. Beraz, bertan egon behar da sorpresaz zertan datzan ikusteko. •

“profesionalak garelako”

“lehiakorrak izan nahi dugulako”

Bai Euskarari Ziurtagiria

gu ziur gaude

1.500 entitate baino gehiago

ziurtagiriaren elkartea

902 430026

“jokaldirik onena delako”

“elkar ulertzen dugulako”



baieuskarari.org